



**UDALBATZAK 2019KO APIRILAREN 1EAN EGINDAKO EZOHIKO  
BILKURAREN AKTA**

**ALKATEA**

Juan Felix Naberan Ozamiz jn. (EAJ-PNV)

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK**

Julián Maria Uriarte Lamikiz jn. (EAJ-PNV)

Edorta Ibarra Basabe jn. (EAJ-PNV)

Edurne Murga Santisteban and. (EAJ-PNV)

Carlos Mendiola Ugalde jn. (EAJ-PNV)

Aitziber Ribas Bilbao and. (EH BILDU)

Jasone Basterretxea Oyarzabal and. (EH BILDU)

**IDAZKARIA:**

Amaia Abanzabalegui Aranguren and.

Astelehenean, bi mila eta hamazortziko urtarrilaren hogeita bostean, udaletxeko bilkura aretoan, Gauegiz Arteagako Udalaren udalbatza bildu da hamazortzietan ezohiko bilkuran eta lehen deialdian, horretarako alde zuzenetik beren-beregi egindako deialdiaren bidez.

Udalbatzako zinegotzi guztiak bertaratu dira bilkurara. Bilkura horren burua Alkate jauna izan da, eta akta hau sinatzen duen idazkari-kontu hartzailea bertaratu da.

Lehendakaritzak bilkurari hasiera emanda, **GAI ZERRENDAN** jasotako gaiak jorratzen hasi dira:



**Lehenena.- 2019ko urtarrilaren 25eko bilkuraren aktaren zirriborroa onartzea, hala badagokio.**

Idazkari andreak 2019ko urtarrilaren 25eko bilkuraren aktaren zirriborroaren berri eman du; gauzak horrela, akta aho batez onartu da.

**Bigarrena.- 2019ko apirilaren 28ko hauteskunde orokorren hauteskunde-mahaiaren zozketa publikoa.**

Diputatuen Kongresuaren eta Senatuaren desegitea, eta Diputatuen Kongresurako eta Senaturako 2019ko apirilaren 28ko hauteskunde deialdia (129/2019 Errege Dekretu bidez onartutakoa) 2019ko martxoaren 5eko BOEn argitaratuta, eta Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 26. artikulua araberak, deialdiaren ondorengo hogeita bosgarren eta hogeita bederatzigarrenaren arteko epearen barruan, Hauteskunde Mahaietako kideak, lehendakariak eta bokalak zozketa publiko izendatu behar dira, hautesleek zerrendan dauden pertsona guztien artean, Lege horretan aipatutako gaitasun-baldintzak betetzen badituzte.

Udalbatza honen osoko bilkurak aho batez **ERABAKI DU:**

**LENENGOA.-** Zozketa publikoa egitea, hauteskunde-mahaiko lehendakariak eta bokalak, eta mahaiko kide bakoitzaren bi ordezkari izendatzeko helburuarekin.

Zozketa publikoan har dezaketen pertsonak zehaztu aurretik, Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 26. artikuluari jarraituz, Estatistikako Institutu Nazionalaren "Conoce" aplikazio elektronikoaren bidez egingo da zozketa.

**BIGARRENA.** Zozketa eginda, hauteskunde-mahaietako kide hauek izendatu dira:

BARRUTIA: 01 ATALA: 001 MAHAIA: U

Hauteskunde-lokalaren izena: Kultur Etxea

Helbidea: Herriko Plaza, 2, Gauegiz Arteaga.



- TITULARRAK

- Batzordeburua: J. M. U. L. jauna, NAN: \*\*\*7036\*\*.
- Lehen bokala: J. D. R. R. jauna, NAN: \*\*\*1327\*\*.
- Bigarren bokala: A. L. C. jauna, NAN: \*\*\*1386\*\*.

- ORDEZKOAK

- Batzordeburuaren lehen ordezkoa: M. G. Z. A. andrea, NAN: \*\*\*5319\*\*.
- Batzordeburuaren bigarren ordezkoa: M. R. A. andrea, NAN: \*\*\*4753\*\*.
- Lehen bokalaren 1. ordezkoa: E. P. M. andrea, NAN: \*\*\*7662\*\*.
- Lehen bokalaren 2. ordezkoa: U. B. O. jauna, NAN: \*\*\*2707\*\*.
- Bigarren bokalaren 1. ordezkoa: E. P. G. andrea, NAN: \*\*\*6366\*\*.
- Bigarren bokalaren 2. ordezkoa: S. O. H. andrea, NAN: \*\*\*1708\*\*.

**HIRUGARRENA.-** Hauteskunde-mahaietako batzordeburuarne eta bokalen izendatzea jakinaraztea interesdunei, hiru eguneko epean.

**LAUGARRENA.-** Erabaki hau jakinaraztea eremuko Hauteskunde Batzarrari.

**Hirugarrena.- Onartzea, hala badagokio, HAPOren aurrerapena jendaurrean ikusgai egon den aldian aurkeztutako iradokizunen erantzunak.**

**Kontuan hartuz** Gauegiz Arteagako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren aurrerapen-agiria, eta ingurumen-eraginaren baterako ebaluazio-azternalara, bi hiletan jendaurrean ikusgai jarri dira, eta iradokizunak eta plangintza aukerak egin dira. 2018ko urriaren 11n erabaki hori argitaratu zen 197. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta El Correo eta Deia egunkarietan.

**Kontuan hartuz** parte hartzeko eta jendaurrean ikusgai jartzeko prozesu hau amaitutakoan, eta herritarrek aurkeztutako idazkiak aztertutakoan, erredaktore-taldeak, aurkeztutako iradokizunen tratamenduari buruzko partaidetza-memoria bat egin duela,



proposatzen diren antolaketaren irizpide eta helburuen arabera. Memoria hori espedienteari atxiki zaio, eta erabakitzeke proposamenaren barruan ere badago.

Halaber, nahitaezko txostenak **eskatuta**, espedientean erredaktore-taldearen txostena jasotzen da, eta hor, egin direnen laburpen bat dago.

**Kontuan hartuz** 2018ko uztailaren 4an (RE 1370) eta 2018ko abenduaren 18an (RE 2.701) eskumeneko foru eta autonomia organoaren ebazpena jaso dela, eta horren bidez, ingurumen-eraginaren aurretiko txostena egiten dela. Txosten hori baloratuko dute, hasierako onarpen agirirako. Hor, Plan Orokorreko azkenean hartzen diren erabakiak aztertu eta justifikatuko dira, harekin zerikusia duten alderdi bakoitzei dagokienez.

**Kontuan hartuz** plangintzako irizpide eta helburuen agiria idatzi dela, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra hasiera batean onartzeko. Irizpide eta helburu horiek egitean, aurkeztutako iradokizunez gain, sektoreko administrazioek egindako txostenak ere kontuan hartu dira.

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90.4. artikuluan **ezarritakoaren arabera**, azalpenaren eta partaidetza publikoaren nahiz erakundeen partaidetzaren emaitza ikusita, Plan Orokorra idazteko oinarri gisa erabiliko diren irizpide eta helburuak kontuan hartuko ditu Udalak. Hartutako irizpide eta helburuak ingurumen-eraginaren baterako ebaluazio txostenaren edukiarekin bat ez datozenean, hartutako erabakiaren arrazoiak berariaz azalduko dira.

**Jakinarazita** Jon Saiz Pradana aholkulariaren 2019ko martxoaren 25eko txosten juridikoa (RE 964), hau adierazten duena: "ez da nahitaezkoa argitaratzea HAPOn berrikuspenaren aurrerapenaren iradokizunei emandako erantzunak, hala ere, argitara daitezke, betiere datu pertsonalak ez dira ematen, txosten honen edukian jasotzen den moduan".

**Ikusita** 2019ko martxoaren 15eko informazio batzordeak aho batez emandako irizpena.

Horregatik guztiagatik, espedientean dagoen dokumentazioa ikusita, Udalbatza honek aho batez **ERABAKI DU**:



**LEHENENGOA.-** Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren Aurrerapena jendaurrean ikusgai egon denean egindako iradokizunak jakinaraztea, espedientean jasotzen den partaidetza-txostenean adierazitakoaren arabera.

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea erredaktore-taldeari, agiria idatz dezan, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra hasiera batean onartzeko. Horrez gain, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, lurraldean salduenetarikoa den egunkari batean eta udalaren web-orrian argiratzea, aurkeztutako iradokizunen egileek erabaki honen edukia ikus dezaten, eta horiek azter ditzaten, espedientearen barruan dagoen partaidetza-memorian jasotzen den moduan. Halaber, jakinaraztea haren aurka ezin dela inolako errekurtsorik aurkeztu, administrazio-egintza delako.

**Laugarrena.- Onartzea, hala badagokio, Gauegiz Arteagako HAPO idazteko irizpideak eta helburuak-**

**Kontuan hartuz** Gauegiz Arteagako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren aurrerapen-agiria, eta ingurumen-eraginaren baterako ebaluazio-azterketa, bi hiletan jendaurrean ikusgai jarri dira, eta iradokizunak eta plangintza aukerak egin dira. 2018ko urriaren 11n erabaki hori argitaratu zen 197. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta El Correo eta Deia egunkarietan.

**Kontuan hartuz** parte hartzeko eta jendaurrean ikusgai jartzeko prozesu hau amaitutakoan, eta herritarrek aurkeztutako idazkiak aztertutakoan, erredaktore-taldeak, aurkeztutako iradokizunen tratamenduari buruzko partaidetza-memoria bat egin duela, proposatzen diren antolaketaren irizpide eta helburuen arabera. Memoria hori espedienteari atxiki zaio, eta erabakitzeko proposamenaren barruan ere badago.

Halaber, nahitaezko txostenak **eskatuta**, espedientean erredaktore-taldearen txostena jasotzen da, eta hor, egin direnen laburpen bat dago.

**Kontuan hartuz** 2018ko uztailaren 4an (RE 1370) eta 2018ko abenduaren 18an (RE 2.701) eskumeneko foru eta autonomia organoaren ebazpena jaso dela, eta horren bidez, ingurumen-eraginaren aurretiko txostena egiten dela. Txosten hori baloratuko dute, hasierako onarpen agirirako. Hor, Plan Orokorrerako azkenean hartzen diren



erabakiak aztertu eta justifikatuko dira, harekin zerikusia duten alderdi bakoitzei dagokienez.

**Kontuan hartuz** plangintzako irizpide eta helburuen agiria idatzi dela, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra hasiera batean onartzeko. Irizpide eta helburu horiek egitean, aurkeztutako iradokizunez gain, sektoreko administrazioek egindako txostenak ere kontuan hartu dira.

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90.4. artikuluan **ezarritakoaren arabera**, azalpenaren eta partaidetza publikoaren nahiz erakundeen partaidetzaren emaitza ikusita, Plan Orokorra idazteko oinarri gisa erabiliko diren irizpide eta helburuak kontuan hartuko ditu Udalak. Hartutako irizpide eta helburuak ingurumen-eraginaren baterako ebaluazio txostenaren edukiarekin bat ez datozenean, hartutako erabakiaren arrazoiak berariaz azalduko dira.

**Jakinarazita** Jon Saiz Pradana aholkulariaren 2019ko martxoaren 25eko txosten juridikoa (RE 964), hau adierazten duena: "ez da nahitaezkoa argitaratzea HAPOren berrikuspenaren aurrerapenaren iradokizunei emandako erantzunak, hala ere, argitara daitezke, betiere datu pertsonalak ez abdira ematen, txosten honen edukian jasotzen den moduan".

**Ikusita** 2019ko martxoaren 15eko informazio batzordeak aho batez emandako irizpena.

Horregatik guztiagatik, espedientean dagoen dokumentazioa ikusita, Udalbatza honek aho batez **ERABAKI DU**:

**LEHENENGOA.-** Onartzea Gautegiz Arteagako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra idazteko oinarritzat erabiliko diren irizpide eta helburuak, agiria idazteko Plangintzako irizpide eta helburuen agirian jasotzen den moduan, espedientean jasotzen den Hiri Antolamendurako Plan Orokorra hasiera batean onartzeko.

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea erredaktore-taldeari, agiria idatz dezan, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra hasiera batean onartzeko. Horrez gain, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, lurraldean salduenetariko den egunkari batean eta udalaren web-orrian argiratzea, aurkeztutako iradokizunen egileek



erabaki honen edukia ikus dezaten, eta horiek azter ditzaten, espedientearen barruan dagoen partaidetza-memorian jasotzen den moduan. Halaber, jakinaraztea haren aurka ezin dela inolako errekurtsorik aurkeztu, administrazio-egintza delako.

**Bosgarrena.- Onartzea, hala badagokio, 2019. urteko aurrekontuaren aldaketa.**

**Ikusita** kredituak aldatzeko espedientea, 3/2019 kreditu gehigarrien bidez, Gauteviz Arteagako Udal honen aurrekontuan eragiten duena.

**Ikusita** idazki-kontu hartzaileak egindako txostena, espediente hori, aplikatzen ziaon arautegiarekin, zehazki tokiko erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako baldintza eta izapideekin, bat datorrela dioena.

**Jakinarazita** idazkari-kontu hartzaileak geldikinak gehitzeko modalitatean 1. eta 2. kredituak aldatzeko espedientea eta kreditu gehigarrien modalitatean 3. kreditua aldatzeko espedientea, diruzaintzako geldikintza erabiltzea proposatzen duena, gastuak finantzatzeko, ez dute arriskuan jartzen udalaren finantza-iraunkortasuna, abenduaren 20ko 9/2013 Lege Organikoak ezarritako baldintzen arabera.

**Kontuan hartuta** informazio batzordearen 2019ko martxoaren 15eko aldeko irizpena.

Horregatik guztiagatik, espedientearen dagoen dokumentazioa ikusita, Udalbatza honek aho batez **ERABAKI DU**:

**LEHENENGOA.-** Kredituen aldarazpenaren 3/2019 espedientea onartzea ekitaldi honetako Gautegi Arteagako Udaleko aurrekontuari eragiten dion kreditu osagarrien bidez, egindako proposamenaren eta kapituluak egindako laburpen honen arabera:

**KREDITUEN GEHIKUNTZA**



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA  
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

---

<b>Aplikatu</b>	<b>Izendapena</b>	<b>Gehikuntzak</b>
335.62900	Euskaltzaindiaren toponimia azterlana	6.000
432.22799	Turismo sustapena	3.000
920.62302	Udaleko leihoak	40.000
312.62200	Mediku-kontsultategia	10.000
459.60101	Obra txikiak	50.000
1532.60104	Obra Zelaieta kalean	80.000
1532.60102	Bide publikoen zoladura	20.000
1532.60000	Zelaieta kalean lurzorua lortzea	30.000
1532.60105	Kanalako trafikoa arintzea	40.000
920.22604	Zerbitzu juridikoak	20.000
459.60102	Udaleko azpiegiturak egokitzea	30.000
171.62202	Kanpoko komun publikoak	15.000
342.62201	Gauegiz Arteagako frontoia	20.000
432.48100	Urdaibai Bird Center	25.000
311.22799	Txakurren zerbitzuak	2.000
<b>GEHITUTAKOA, GUZTIRA...</b>		<b>391.000 €</b>

**HAI EK FINANTZATUKO DITUZTEN BALIABIDEAK**

<b>Kapitulua</b>	<b>Izendapena</b>	<b>Zenbatekoa</b>
87000	Gastu arruntetarako diruzaintzako	391.000 €





	gerakina	
<b>GUZTIRA</b>		<b>391.000 €</b>

**BIGARRENA.-** Jendaurrean ikusgai jartzea, hamabost egun, erreklamazioak egin daitezten. Ez bada erreklamaziorik aurkezten, erabaki hau behin betiko bihurtuko da. Horrenbestez, aurrekontu orokorra onartzeko ezarritako gainerako izapide berdinak egin beharko dira espediente honetan.

**Seigarrena.- Onartzea, hala badagokio, Gautegiz Arteagako Udaleko bulegoen garbiketa-zerbitzuaren urtebeteko luzapena.**

**Ikusita** "udal bulegoen garbiketa-zerbitzuaren" kontratua urtebete luzatzeko eskaera, Garbialdi SA enpresak 2019ko martxoaren 5ean (RE 552) aurkeztutakoa.

**Kontuan hartuz** 2016an adjudikatutako "udal instalazioen garbiketa-zerbitzua" kontratatzeke administrazio-klausula berezien agirien "kontratua gauzatzeko epeari" buruzko 5. puntua, non espediente honen xede den kontratuaren hasierako iraupena 2 urtekoa izango dela ezartzen den, urtebeteko beste bi luzapen egiteko aukerarekin. Ez da onartuko luzapen taziturik, beraz, kontratuaren indarraldia amaitu aurreko hilabetean, luzapena egiten den ala ez erabaki beharko da. Hala ere, kontratua amaitutakoan ez bada adjudikatu, eta hori justifikatzne duten interes publikoko arrazoirik ez badago, kontratuarekin jarraitu beharko du adjudikatu arte, badintza berdinekin, eta lehenbailehen adjudikatu beharko du.

**Kontuan hartuta** informazio batzordearen 2019ko martxoaren 15eko aldeko irizpena.

Horregatik guztiagatik, espedientean dagoen dokumentazioa ikusita, Udaltzaha honek aho batez **ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA-** "Udaleko instalazioen garbiketa-zerbitzuaren" kontratua urtebete luzatzeko eskaera onartzea Garbialdi SA enpresaren alde.

**BIGARRENA.-** Jakinaraztea interesdunari administrazio bideari amaiera ematen



dion ebazpen honen kontra Gauegiz-Arteagako Udalbatza honen aurrean berraztertze errekurtsoa jarri ahalko duela hilabeteko epean (jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita) edo Administrazioarekiko Auzien Bilboko Auzitegian administrazioarekiko auzi errekurtsoa bi hilabeteko epean (jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita).

### **Zazpigarrena.- 2018. urteko aurrekontua likidatzea.**

Alkateak, Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 49.3. artikulua betez, 2018ko aurrekontuaren likidazioari buruzko eskaneatutako txostena jakinarazi zaio Udalbatzari posta elektronikoz. Txosten horren arabera, aurrekontu doituaren emaitza 183.155,05 euro izan da, eta 427.207,67 euroko geldikina dago diruzaintzak gastu orokorretarako.

### **Zortzigarrena.- Ekonomia eta aurrekontu arloko informazioa**

Idazkariak 2019ko aurrekontuaren gauzatze egoeraren berri eman du.

Jakinaren gainean daudela adierazi dute.

### **Bederatzigarrena.- Alkatezaren dekretuen berri ematea.**

**7/2019 Dekretua.-** Gobernu Batzordearen 2019ko urtarrilaren 31ko deialdia, ohiko bilkurarako.

**8/2019 Dekretua.-** O2019/03 gastu agindua, dietak.

**9/2019 Dekretua.-** O2019/04 gastu agindua, nomina.

**10/2019 Dekretua.-** Edorta Ibarra Basabe jaunaren, Gauegiz Arteagako Udaleko zinegotzi ordezkariaren, alde eskuordetzea ezkontzat bat baimentzeko eskumena.

**11/2019 Dekretua.-** Edorta Ibarra Basabe jaunak ezkontza zibil bat baimentzea.



**12/2019 Dekretua.-** Kanalako Memenkoko Kultur Elkarteak zuzendutako Kanalako jai batzordearentzako zuzeneko dirulaguntzaren azken ebazpena.

**13/2019 Dekretua.-** O/2019/05 gastu agindua, Kanalako Jaiak, 2. zatia.

14/2019 Dekretua.- 2018ko elkarten dirulaguntzaren azken ebazpena: Gartiape Kirol Kluba, Kanalako Nagusiak elkarte eta Antoliñape Kultur Elkartea.

**15/2019 Dekretua.-** O/2019/06 gastu agindua, elkarteentzako dirulaguntza, 2. zatia (Gartiape Kirol Kluba, Kanalako Nagusiak elkarte eta Antoliñape Kultur Elkartea).

**16/2019 Dekretua.-** F. Z. C. jaunari lizentzia ematea, Gauteviz Arteagako Zelaietan (7. industrialdea, 164 lurzatia) dagoen finkako pinuak ebakitzeko, eraisteko eta ateratzeko, bide publiko batetik igarotzen delako, hilerriaren ondoan dagoen Zelaieta auzoan.

**17/2019 Dekretua.-** A. M. L. R. andreari (NAN: \*\*\*3977\*\*) aparkatzeko txartela ematea, bost urtetarako, 2024ko otsailaren 11 arte indarrean egongo dena.

**18/2019. Dekretua.-** O/2019/07 gastu agindua, gastu orokorrak.

**19/2019 Dekretua.-** Lizentzia ematea J. C. V. jaunari, Gauteviz Arteagako Etxeburun dagoen finkako pinuak (006 industrialdea, 040 lurzatia) ebakitzeko, eraisteko eta ateratzeko, bide publiko batetik igarotzen delako, Ereñozar eremuan.

**20/2019. Dekretua.-** Gobernu Batzordearen 2019ko otsailaren 15eko deialdia, ohiko bilkurarako.

**20/2019 bis Dekretua.-** Lizentzia ematea K. L. E. jaunari, Gauteviz Arteagako Mastein dauden finketako pinuak (006 industrialdea, 037 lurzatia, eta 006 industrialdea, 308 lurzatia) ebakitzeko, eraisteko eta ateratzeko, bide publiko batetik igarotzen delako, Ereñozar eremuan.

**21/2019 Dekretua.-** Gastu orokorrak ordaintzeko agindua; O/2019/08.

**22/2019 Dekretua.-** Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 2019. urteko zergaren udal errolda onartzea.



**23/2019 Dekretua.-** Lizentzia ematea J. A. G. A., bere senide honen nitxoan, hilarri bat jartzeko hilobian: T. A. G.

**24/2019 Dekretua.-** Nominak ordaintzeko agindua; O/2019/09.

**25/2019 Dekretua.-** Jakinaraztea erabilera publikoko mendiei buruzko proposamenak, Gauegiz Arteagako Udalak Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Sustatzeko Sailak onartu behar duen hobekuntza plana idazteko dituenak.

**26/2019 Dekretua.-** Baimentzea Frontoiko udal instalazioaren erabilera Begoñazpi Ikastolari (IFZ: R4800610J), 2019ko martxoaren 15erako, 13:30etik 15:00etara.

**27/2019 Dekretua.-** Gobernu Batzordearen deialdia 2019ko martxoaren 7rako.

**28/2019 Dekretua.-** Aparkatzeko txartela ematea J. M. S. M. jaunari (NAN: \*\*\*0235\*\*), bost urtetarako.

**29/2019 Dekretua.-** 2018ko aurrekontu orokorraren likidazioa onartzea.

**30/2019 Dekretua.-** 1/2019 kreditu geldikinen gehitzea onartzea.

**31/2019 Dekretua.-** Hauteskunde orokorrak erakusteko tokiak eta hauteskunde-zerrenda baliabide informatikoen bidez kontsultatzeko zerbitzua onartzea.

**32/2019 Dekretua.-** Gastu orokorrak ordaintzeko agindua; O/2019/10.

**33/2019 Dekretua.-** Baimentzea Frontoiko udal instalazioaren erabilera San Fidel Ikastolari, 2019ko martxoaren 22rako, 13:30etik 15:45era.

**34/2019 Dekretua.-** Informazio Batzordearen 2019ko martxoaren 15eko deialdia.

**35/2019 Dekretua.-** 2/2019 kreditu geldikinen gehitzea onartzea.

**36/2019 Dekretua.-** Uztea D. A. S. jaunari (NAN: \*\*\*8182\*\*) Gobernu Ordezkaritzak Udalari bidalitako errekerimenduak jasotzen dituzten espedienteen kopia egitea, Espainiako banderaren eta beste bandera eta entseina batzuen erabilera arautzen duen urriaren 29ko 39/1981 Legea ez betetzeari dagokionez, eta Udalak errekerimendu horiei emandako erantzunak, 2010. urtetik aurrera.



**37/2019 Dekretua.-** Baimentzea Frontoiko udal instalazioaren erabilera Begoñazpi Ikastolari, 2019ko martxoaren 27rako, 13:30etik 15:00etara.

**38/2019 Dekretua.-** 2018ko elkarten dirulaguntzaren azken ebazpena: Gauteviz Arteagako Helduen Elkarte, Gauteviz Arteagako Helduen Elkarte, Artie Dantza Taldea, 3K Kanalarrok Kanalatik Kanalarako Auzokide Elkarte eta Montorrealde Guraso Elkarte.

**39/2019 Dekretua.-** Gastu orokorrak ordaintzeko agindua; O/2019/11.

**40/2019 Dekretua.-** O/2019/12 gastu agindua, elkarteei emandako dirulaguntza, 2. zatia (Gauteviz Arteagako Helduen Elkarte, Gauteviz Arteagako Helduen Elkarte, Artie Dantza Taldea, 3K Kanalarrok Kanalatik Kanalarako Auzokide Elkarte eta Montorrealde Guraso Elkarte).

**41/2019 Dekretua.-** Udalbatzak 2019ko martxoaren 29ko ohiko bilkura egiteko deialdia.

Jakinaren gainean daudela adierazi dute.

**Hamargarrena.-** Toki Gobernuaren Batzordeak hartutako erabakien berri ematea.

**7/2019.-** Sailkatzea ZARDOYA OTIS Saren alde, igogailuak eta eskailera mekanikoak 2019an eta 2020an mantentzeko esparru erabakian.

**8/2019.-** Atxikitzea "material elektrikoari" buruzko 1. loteari, 10.000 €-ko gehieneko aurrekontuarekin, "2019. eta 2020. urteetan, material elektrikoa, elektronikoa eta etxetresna elektrikoak erostea" izeneko esparru erabakiaren barruan.

**9/2019.-** Ematea J. J. I. O. jaunari (NAN: 14.172.583Y) Gauteviz Arteagako (Bizkaia) Agirreta 16A, 16A02n dagoen Labirua baserrian estalkia berritzeko lizentzia.

**10/2019.-** Dauden dirulaguntzak aztertzea eta jarraituko den estrategia ezartzea.

**11/2019.-** Hasiera batean onartzea Gauteviz Arteagako JUren urbanizazio jarduketaren unitatea birpartzelatzeko proiektuaren espedientea.



**12/2019.-** Adjudikatzea “inauterietarako disko festa” zerbitzu kontratua Keima-ri (IFK: 95113056B), 2019ko otsailaren 6ko eskaintzarengatik (RE 316), 660 € (BEZa barne).

**13/2019.-** Euskal Herriko Unibertsitateari udal baimena ematea Urdaibiaiko Biosfera Erreserbako estuarioko zenbait tokitan sedimentuak ateratzeko, ikertzeko helburuekin.

**14/2019.-** Ematea E. B. L.i (NAN: \*\*\*6089\*\*) Larragoikoa baserria eraikitzeko lizentzia, Gauteviz Arteagako Isla Bekoa 9. zenbakian (II. fasea).

**15/2019.-** Adjudikatzea “komunikazioa Oizmendi Telebista eta Onda Vasca irratieta” zerbitzuen kontratua Oizmendi Telebistari (IFK: 95462230B), 2019ko urtarrilaren 30eko eskaintzarengatik (RE 239), 2904 €-koa (BEZa barne), urtebeterako.

Jakinaren gainean daudela adierazi dute.

#### **Hamaikagarrena.- Galde-eskeak**

- **Aurrekontuei buruzko informazioa:** Aitziber Ribas Bilbao andreak eta Jasone Basterretxea Oyarzabal andreak adierazi dute, beren ustez, 2019. urteko aurrekontuen jakinarazpen publikoa azkarregi egin zen.

- **Ohiko edo ezohiko osoko bilkura:** Jasone Basterretxea Oyarzabal andreak adierazi du uneko osoko bilkurak ezohikoa zela ematen zuela, ohiko osoko bilkurak urtarril, apiril, uztail eta urrian direlako. Idazkari kontu-hartzaileak erantzun du argi dagoela hutsegite bat izan dela, eta osoko bilkura hau ezohikoa dela, eta 2019ko martxoaren 15eko informazio batzordea ere ezohikoa izan zela.

- **HAPOren iradokizunei emandako erantzunak:** Bertaratutakoen artean gogoratzen da HAPOren aurrerapena erakustean egindako iradokizunei emandako erantzunak HAPOren erredaktore-taldeak idatzi dituela, Udalak partaidetza zuzenik izan gabe.



- **Korrika:** Korrika 2019ko apirilaren 11n igaroko da Gauegiz Arteagatik, 23:00etan, eta 1 km hartu da Montorre Eskolaren eta Udal honen artean.

-----

**\*\*\*\*\* AKTAREN AMAIERA**

Eztabaidatzeko gai gehiagorik ez dagoenez, alkate jaunak, behin bertaratutakoei eskerrak eman ondoren, bilkura amaitutzat eman du gorago aipatutako eguneko hemeretziak eta berrogeita bostean; gauzak horrela, bilkurari buruzko akta hau egin da eta hurrengo bilkuran onartu beharko da. Eta, korporazioko idazkaria naizen aldetik, hori guztia halaxe EGIAZTATZEN DUT.

O.E.

ALKATEA,

Sin.: Juan Felix Naberan Ozamiz

Sin.: Amaia Abanzabalegui Aranguren